

Ikastetxe pribatuetan, gastuak % 1,7 egin zuen behera 2009 eta 2012 artean Euskal AEn


Ikastetxe pribatuen gastu osoa BPGrekiko % 1,61 izan zen 2012an

Euskal AEko irakaskuntza pribatuak, 450 ikastetxe eta 210.000 ikasle dituen, 1.044 milioi euroko gastu osoa izan zuen 2012an, 2009an baino % 1,7 gutxiago, Eustatek eginiko datuen arabera. 2012an, BPGrekiko gastua % 1,61ekoa izan zen, 3 urte lehenago baino bost ehuneko gutxiago (1,66).

2012an, 1.003 milioi eurokoa izan zen gastu arrunta; alegia, % 1,8 gehiago. Gastu osoaren % 96 izan zen gastu arrunta, gehienbat langileei ordaintzera bideratu zena (% 74). Aitzitik, inbertsioa 41,3 milioi eurokoa izan zen, 2009an baino nabarmena txikiagoa (-% 47). Horri zor zaio gastu osoaren beherakada. Gastu arruntari dagokionez, gastu motak bananduta, irakaskuntzako gastuak nahiz zerbitzu osagarriengatik gastuak (jangela eta garraioa, batez ere), % 2 eta % 2,4 aldatu ziren, hurrenez hurren. Jarduera osagarrien ondoriozkoak % 10 jaitsi ziren.

Ikastetxe motari dagokionez, unibertsitate aurreko mailetakoko ikastetxeetan eman zen sektoreko gastu osoaren zati handiena, % 87, aldiz, goi-ikasketen ikastetxeek gastuak % 11 eta irakaskuntza artistikoarenak % 2 izan ziren.

Euskal AEko zentro pribatuetako irakaskuntza gastuaren bilakaera, ikasleko (€)



Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzazioaren estatistika 2012

Ikasleko (-% 2,2) eta unitateko (-% 2,9) batez besteko gastua murriztu da

2009-2012 aldian, hala ikasleko irakaskuntza-gastua (-% 2,2), nola unitateko gastua (-% 2,9) jaitsi egin ziren. Alde horren arrazoia unitateko ikasle-kopuruaren igoerari zor zaio; % 2 igo zen oinarritzko irakaskuntza, % 3,3 bigarren mailako irakaskuntzan.

2012an, **eskola-unitateko edo taldeko irakaskuntzako kostuak** 71.000 eta 84.500 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), 103.500 eurokoak izan ziren, 94.000koak Lanbide Heziketan (LH) eta 130.500koak Batxilergoan. Helduen Hezkuntzan (HHE), unitateko kostua 49.500 eurokoa izan zen. Ratio txikiak, oraindik orain, titulartasun erlijiosoko ikastetxeenak dira.

Ikasleko irakaskuntza-kostuak 3.800 eurokoak izan ziren Haur Hezkuntzan, 4.000 eurokoak Lehen Hezkuntzan, 5.200 eurokoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 5.400 eurokoak Batxilergoan eta 5.300 eurokoak Lanbide Heziketan. Unibertsitatean, ikasleko gastua 6.200 eurokoa izan zen eta 1.600ekoa, berriz, Irakaskuntza Artistikoetan.

Diru-laguntza publikoak ikastetxe pribatuen diru-sarreraren % 65 dira

Ikastetxe pribatuak, guztira, 1.055 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten; % 99 diru-sarrera arrunten ondoriozkoak, % 1 kapitaleko diru-sarrerengatikoak. Diru-laguntza publikoak, diru-sarrera guztien % 65, diru-sarrera arrunten iturri nagusia dira, aurreko urteetako proportzioari eutsiz. Ondoren, irakaskuntzako kuotak (% 14) eta zerbitzu osagarriak (% 9,3) daude.

Kuota bidezko diru-sarrerei dagokienez, familiek ordaindutako kopuru osotik % 53,8 eragin zuen irakaskuntzak, % 8,4 garraioak, % 24,7 jangelak eta % 10,6 jarduera osagarriak. Gainerakoa, beste zerbitzu batzuen kuotei egotzi behar zaie.

EAEko ikastetxe pribatuetako **ikasleko batez besteko kuotak** 700 eurokoak izan ziren, zerbitzu osagarriak ordaintzeko kuotak 470 eurokoak eta jarduera osagarriengatikoak 140 euro izan ziren bitartean, ikasleko.

1. taula: Gastu osoa eta irakaskuntzako gastua, ikasleko eta unitateko, 1999-2012 aldian

	1999	2001	2003	2005	2007	2009	2012	Δ 2012/2009	(1) Δ 2012/1999
Guztizko gastua (mila €)	568.335	650.992	706.695	798.624	889.011	1.062.383	1.043.941	-1,7	4,8
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	2.355	2.764	3.143	3.539	3.933	4.443	4.345	-2,2	4,8
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	56.653	62.565	66.708	71.097	79.425	89.479	86.866	-2,9	3,3

(1) Urteko tasa metatua

Iturria: Eustat. Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzazioaren estatistika 2012

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzaketaren estatistikari buruzko prentsa-ohar

Euskal AEko Irakaskuntza pribatuaren gastu eta finantzaketaren estatistikari buruzko datu bankua